



Esp.-kodea: 2017SAPL0005

UDAL PLENOA
Bilkura arrunta

BILKURA DATUAK

EGUNA: 2017/06/06	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 17:00 - 18:25	

BILDUTAKOAK:

Lehendakaria: María Ubarretxena Cid (EAJ-PNV)

Zinegotziak: Ibon Arrupe Aldecocca (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Ander Garay Zabaleta (EAJ-PNV)
Amaia Ceciaga Garmendia (EAJ-PNV)
Juan Karlos Garitano Ezkurra (EAJ-PNV)
Amaia Azpiazu Aramburu (EAJ-PNV)
Anuska Ezkurra Zubizarreta (EAJ-PNV)
Eneko Barberena Mondragon (EH BILDU)
Amaia Larrañaga Galdos (EH BILDU)
Eneko Fernandez Ortiz de Luzuriaga (EH BILDU)
Maialen Zabaleta Madinabeitia (EH BILDU)
Jose Luis Encinas Jose (EH BILDU)
Itxaro Artola Lizarralde (EH BILDU)
Urki Larrea Ibabe (EH BILDU)
Oscar Garcia Horrillo (PSE-EE)
Victoriano Fuentes Noguera (PSE-EE)
Anabel Legaz Canflanca (PSE-EE)
Igor Urizar Murgoitio (Baleike)
Juan Luis Merino Sanabria (Irabazi Arrasate)

Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.

BILDU EZ DIREN UDALKIDEAK: Eva Abuin Bideburu (Baleike)

BERTARATZE Bilkura hasi denetik bukaeraraino ez da bertaratze zein irteerarik izan.



Esp.-kodea: 2017SAPL0005

ETA IRTEERAK:

M. UBARRETXENA (Lehendakaria):

Alkateak bertaratuak agurtu ditu eta plenoari hasiera eman dio.

Eskolako Agenda 21: Klima aldaketa

Gazteluondo: Alaitz Azula

Arratsalde on!

Gaur hemen gaudenok ikasleak gara Arrasateko Herri Eskolan, Institutuan eta Arizmendi Ikastolan (Gazteluondo, Arimazubi, Santa Teresa eta Gaztelupe guneeetan). Ikastetxe horietako 6-18 urte bitarteko ikasle guztiok jardun dugu aurtengo ikasturtean Eskolako Agenda 21 lantzen.

Eskolako Agenda 21aren bitartez saiatzen ari gara Arrasatek aurrera egin dezan jasangarritasunaren bidean, eta gure esku dagoena egiten.

Arrasate Herri Eskola: Lander Agirre

Duela 14 ikasturte hasi genuen proiektua eta denbora luze horretan gai hauek landu ditugu: zaborra, ura, energia, kontsumoa, publizitatea, ekitatea, zarata eta uhin elektromagnetikoak, elikadura jasangarria, bioaniztasuna bi urtetan, mugikortasuna, iaz, bizitzeko herria, eta aurtan, Klima Aldaketa izan dugu gai. Datorren ikasturterako ura aukeratu dugu jadanik.

Kurtso honetan asko izan dira egindako lanak eta aktibitateak, bai gure zentroetan, bai Ingurumen Eskolan, bai herriko hainbat txokotan, baina, zuek ideia bat egiteko, adibide gisa hemen zerrendatzen ditugu jarduerak:

Arimazubi: Unai Garcia

- Irailean udalak antolatutako Mugikortasun astean parte hartu genuen, eta batzuek aste horretan konpromisoa hartu genuen eskolara oinez joateko, eta goizean oinez joan ginen eskolara Ingurumen eskolako irakasleekin; saiatu gara ikasturte osoan oinez eskolara gehiagotan joaten, eta horrela neurri batean jaitsi dugu herriko kutsadura maila, kotxez eta autobusez gutxiagotan joan gara eta.
- Gaiaren aurkezpena egin genuen kurtso hasieran, bideo eta aurkezpen batzuk ikusi genituen gure herriko hainbat aspektuei buruz (energia kontsumoa, garraioak, hondakinen kudeaketa,...).



Esp.-kodea: 2017SAPL0005

- Zentroetan txoko berdeak sortu ditugu, eta bertan gaia lantzerakoan ateratako materialak ikusgai jarri ditugu: argazkiak, muralak,...

Institutua: Nerea Perez

- Herriko kaleetan hainbat azterketa egin dugu, eta aztertu dugu zenbat kotxe pasatzen diren leku batetik denbora jakin batean eta kotxe bakoitzean zenbat pertsona zihoan. Azkenean, oso konklusio interesgarriak atera ditugu.
- Energia gaia Klima Aldaketaren aspektu garrantzitsu bat denez, kaleko farolen bonbillak aztertu ditugu, jakiteko kontsumo txikikoak diren edo ez.
- Kontsumoaren aspektuak eta birziklatzearen aspektuak ondo lantzeko, Emausera joan gara, eta bertan arropa ikusi dugu, birziklatutako materialez egina; bertan duten marka propioa ere ezagutu dugu: "sin desperdicio".

Gaztelupe: Iraia Nieto

- Beste bisita batean auzoetan konposta egiteko ditugun auzo konpostaguneak ezagutu ditugu, eta azaldu digute zer-nola erabiltzen diren. Iruditu zaigu oso erraza eta interesgarria.
- Udalako Ingurumen Eskolan oso esperimendu interesgarria egin dugu: ikasi dugu eguzki plaka bat zelan dabilen, papera birziklatu dugu,...
- Herriko azokan ere bisitan egon gara, eta jendeari galdetuta ikasi dugu produktu bakoitza nondik datorren.

Santa Teresa: Nahia Alvarez

- Aztertu dugu orokorrean janaria nondik datorren eta energia kontsumoa ere bai, zenbat kilometro egin behar duen elikagaiak askotan gure etxera ailegatzeko, eta zenbat energia gastatu behar dugun horretarako.
- Aztertu dugu trafikoak zer kalte eragiten duen gure osasunean: arnasteko arazoak,...
- Parte hartu dugu "Arrasate 50 urte barru" lehiaketan; adierazi dugu urte horiek pasatu ondoren gure herria zelan ikusten dugun, eta orokorrean nahiko positiboak izan gara.

Gazteluondo: Iزارo Llodio

- Ondo ikasi dugu hondakinak zelan sailkatu behar ditugun, bai kalean bai etxean; gure etxetara informazio hori eramán dugu.
- Konturatu gara babestu beharreko altxor bat dugula Udala auzoan eta herriko berdeguneetan: gure basoak.



Esp.-kodea: 2017SAPL0005

- Irakasleei galdetegi bat pasatu genien eskolan mugikortasunari buruz, jakiteko eskolara zelan etortzen ziren, eta grafikoak egin genituen datu horiekin.
- Aztertu dugu zer garraio mota erabiltzen dugun gure herrian, eta konturatu gara bizikleta erabili dezakegula joan-etorri asko egiteko; udalaren eskutik jakin dugu Arrasateko Mugikortasun planaren hainbat datu, eta pozik hartu dugu jakitea plan horretan oinezkoak garrantzitsuenak izango direla.

Arrasate Herri Eskola: Ibai Fernandez

'Klima aldaketa' gaia aztertu dugunean, konturatu gara arazo asko agertzen direla (gehienak gure herriko bizimoduarekin lotuta) eta denok egin genezakeela zerbait hori guztia konpontzeko.

Ikasle guztiok parte hartu dugu egiten orain aurkeztuko dizkizuegun ondorioak, proposamenak eta konpromisoak. Lehendabizi ikasgela bakoitzean adostu ditugu, gero ikastetxe bakoitzeko ikasgeletako ordezkarien artean batzarrean, eta amaitzeko, hemen aurkeztuko dizkizuegunak adostu ditugu ikastetxe guztietako ordezkarien artean batzarrean.

Santa Teresa: Jairo Godoy

Hemen aurrean gauden ikasleok lehen aipatu ditudan ikastetxe guztietako ikasleen ordezkariak gara. Orain entzungo dituzuen proposamenekin eta konpromisoekin bizi kalitatea hobetu nahi dugu Arrasaten, hau da, lagundu nahi dugu Arrasate hobea lortzen.



Esp.-kodea: 2017SAPL0005

ARRASATEKO UDALBATZARRERAKO KONKLUSIOAK, PROPOSAMENAK ETA KONPROMISOAK

Institutua: Iruñe Alonso

Ikasturte honetan “Klima Aldaketa”ren gaia landu dugu, eta aztertu dugu hainbat aspektu, zuzenean eragiten dutenak ingurumen arazo horretan.

Beharrezkotzat jo dugu jarraitzea Mugikortasuna lantzen, eta hasteko kurtso hasieran herriko ikasle batzuek parte hartu genuen Mugikortasunaren aste barruan ‘eskolara oinez proiektuan’, eta aste horretan helduek lagunduta oinez joan ginen eskolara, eta gero batzuek jarraitu dugu bakarrik joaten kurtsoan zehar. Eskolara oinez joaterakoan, konturatu gara gure kaleetan oraindik arriskuak daudela: kotxeak gaizki aparkatuta, oinezkoen bideetan ikuspen gutxi, kotxeen abiadura handia,... Gure proposamenak hauek dira: **“bideak aztertzea eta seinalizatzea, eskolara seguruago joateko”, eta “udalaren hirigintza planifikazioan lehentasuna ematea beti oinezkoen”**.

Gaztelupe: Maria Murillo

Gure aldetik prest gaude eskolara oinez joaten hasteko eta jarraitzeko. Oinez mugitzearen onurak azalduko dizkiegu gure ingurukoari, eta animatuko ditugu oinez mugitzera.

Herrian dauden trafikoa arazoak hurbiletik ikusi eta aztertu ditugu herriko hainbat kaleetan: Doctor Bañez, Nafarroa etorbidea, Zarugalde kalea, Araba etorbidea, ...; esan dezakegu gure kaleetan auto asko dabilela, gehienak pertsona bakar batekin barruan, gainera. Hori oso kaltegarria da, bai ingurumenarentzat, bai guretzat, autoek karbono dioxido asko botatzen dutelako atmosferara.

Arimazubi: Egoitz Bergaretxe

Beraz, proposamenak hauek dira: **“udalean pentsatzen hastea neurriak hartu behar direla gure kaleetan trafikoa gutxitzeko, eta neurriak hartzen hastea”, eta “udalaren ibilgailuak elektrikoak izatea”**

Guk, nahiz eta ibilgailurik ez eduki, konpromisoa hartzen dugu berba egiteko etxean ibilgailuaren kalteei buruz.

Denok dakigu zer onuragarria den bizikleta, baina gure kaleetan oso bizikleta gutxi ikusten da. Gure ustez jendea ez da ausartzen hura erabiltzen, neurri handi batean, segurtasun faltagatik; neurriak hartu behar dira trafikoa moteltzeko, eta hemen hainbat proposamen daukagu: **“herri osoan abiadura 30era jaitsi” eta “baterian aparkalekuetan sartzeko modua aldatzea eta atzerantz izatea”**.

Gure partetik konpromisoa hartzen dugu bizikleta gehiagotan erabiltzeko.

Gazteluondo: Oier Borbolla

Klima Aldaketan energiaren gaia oso garrantzitsua da. Herriko argiteriarekin loturiko hainbat aspektu aztertu ditugu, eta konklusio hauek ailegatu gara, horietariko batzuk oso interesgarriak:

- Kale askotan farola zaharrak daude, eta kontsumo altukoak dira.



Esp.-kodea: 2017SAPL0005

- Herriko toki batzuetako farolak, adibidez Monterron azpiko farola biribilek argi kutsadura handia sortzen dute.
- Argiteria berria den tokietan, adibidez, Zarugalde kalean, kontsumo baxuko LED bonbilla daukate eta argi kutsadura murrizta da.
- Lidl et BM inguruan argi larregi dago.
- Udala auzoan dauden eguzki farolak oso egokiak ikusten ditugu eguzkiaren energia aprobetxatzen dugu eta.

Herri Eskola: Ariane Sanchez

Hori guztia aztertu ondoren, gure proposamena da **“herriko argiteria gero eta jasangarriagoa egitea, eta ahal den neurrian eguzki farolak jarri edo kontsumo txikikoak”**, eta **“herriko argi kutsadura aztertu eta neurriak hartzea”**.

Guk gure aldetik konpromiso batzuk hartu ditugu: ez ditugu etxeko eta ikastetxeko argiak piztuko, behar beharrezkoa ez bada; herriko farolak errespetatuko ditugu eta ikastetxe eta etxeko elektrizitate aparatuak ondo erabiliko ditugu, eta behar ez ditugunean guztiz itzalita edukiko ditugu.

Arimazubi: Julen Letona

Gure kontsumo ohiturak ere aztertu ditugu eta orain badakigu horietariko asko ez direla batere jasangarriak: kotxea asko erabiltzen dugu, energia askotan alperrik gastatzen dugu, hondakin gehiegi sortzen dugu, mila kilometrorra fabrikatzen diren produktuak kontsumitzen ditugu eta ez bertakoak, plastikozko poltsak erabiltzen ditugu, nahiz eta ez behar,

Bestetik, konturatu gara hainbat arazotan gero eta kontzientziatuago gaudela eta, horregatik, gure proposamena da **“kanpainak bultzatzea herriko arazoez kontzientziatzeko”** eta **“haur eta gazteen ahotsa entzutea parte hartze prozesuetan”**.

Institutua: Saioa Coronado

Guk parte hartuko dugu arazoei buruz eztabaidatzeko eta proposamenak lantzeko sortzen diren prozesuetan, eta gure kexak eta iradokizunak eztabaidan jarriko ditugu.

Gure basoak ezinbestekoak dira Klima Aldaketari aurre egiteko; aurreko ikasturteetan biodibertsitatea landu dugu sakon, eta badakigu ekosistema horiek oxigenoa ematen digutela eta Planetarako beharrezkoa dela bizitzaren kate osoa mantentzeko. Guk ez badugu hau kontuan hartzen, gure ondorengoek ez dute biodibertsitaterik ezagutuko, eta Planetaren osasuna gero eta okerragoa izango da. Ez dugu ahaztu behar landareak eta zuhaitzak gure laguntzailerik onenak direla klimaren aldaketa geratzeko.

Gaztelupe: Mainer Frutos

Gure proposamenak dira: “herrian ditugun parkeak ondo mantendu eta zuhaitzak zaindu” eta “Santa Barbara eta Monterron parkeak jolas parke natural bihurtzea”.



Esp.-kodea: 2017SAPL0005

Gure aportazioa izango da ideiak ematea herriko bi parke horiek gehiago erabiltzeko eta disfrutatzeko, eta konpromisoa izango da leku horien erabilera egokia egitea eta Naturan disfrutatzea.

Gazteluondo: Markel Errasti

Askotan ez gara konturatzen baina atmosfera zabortegi moduan erabiltzen dugu, eta horrek zuzenean eragiten du klima aldaketan. Euskal Autonomia Erkidegoan milioi tona CO2 baliokide bidaltzen dugu zerura urtero.

Gure herrian azken urteotan hasi gara hondakinen kudeaketa jasangarriarekin eta neurri batean ekintza garrantzitsua izan da Klima aldaketari aurre egiteko; zorionez, ikasi dugu hondakinak ongi bereizten, eta orain gaika jasotzen dugu% 80 inguru. Hori oso berri ona da. Birziklatzeak eta konpostak onura asko dituzte, baina berrerabilera eta zabor gutxiago sortzea dira ekintza gakoak Klima Aldaketaren aurka egiteko.

Herri Eskola: Alize Baquero

Gure proposamenak bi dira: alde batetik, **“herrian dugun hondakinak jasotzeko sistemarekin jarraitzea”** eta, bestetik, **“berrerabiltzea eta hondakin gutxiago sortzea bultzatzen dituzten inizatibak bultzatzea eta laguntzea, adibidez, Emauseko bigarren eskuko denda”**.

Gure aldetik ahalik eta hondakin gutxien sortuko dugu; adibidez, eskolara hamarretakoa taperrean ekarriko dugu.

Arimazubi: Bilal. Outmani

Guk argi dugu bizitzeko herri jasangarri eta atsegin bat nahi dugula, eta horretarako prest gaude laguntza emateko; Arrasate herri atsegina da jadanik, baina konturatu gara denon artean gauza asko daudela hobetzeko, eta hori posible dela. Hurrengo urteetan gure lanarekin jarraituko dugu, eta jarraituko dugu ekarpen txikiak ekartzen foro honetara.

ESKERRIK ASKO!



Esp.-kodea: 2017SAPL0005

K.FERNANDEZ:

Entzun dugu ia eurek ekarritako konklusio, proposamen guztiak eurek asumitzen dituzten konpromisoak eta bueno nire ustez bastante argi geratzen da dana baina onena izaten da gauzak ikustea irudietan bueno orduan horretarako prestatu dugu aurten euren irudiekin eta beste irudi batzuekin bideo txiki bat eta hoin ikusiko dugu danok. Bale bakarrik alde hortan dauden ziengotzi danak jarri behar dira alde hontan ze bestela ez dute ikusiko. Bitartean joango naiz ni jartzen

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Bueno ba orain zuek egin dizkiguzue proposamenak eta bueno ba guri esateko dagokigunetik eskola agenda 21eko 14. Proiektua da ikastetxe guztien elkarlanaren artean egiten duzuen eta udalean aztertzen diren gaietan parte hartzeko modu bat, benetan eskertzen dugu egiten duzuen lana gai guztiak dira garrantzitsuak, proposamen berri asko ekarri dituzue.

Gainera arazo konkretuei buruz eta dakizuenez gauzak ez dira hemen gelditzen ze gero ekainean bueno lehengo urteko berri ematea izan genuen orain dela aste batzuk kulturaten hurrengo urtean ere udalak kontu ematea izango du zuekin zuek egin dituzuen proposamenetan. Gero guk urtean zehar proposamen horiek udaletxean aztertu egiten ditugu eta erantzun bat ematen dizuegu eta gero ekainean berriro izaten dugu udalarekin kulturaten normalean kasu gehienetan eta guk berri ematen dizuegu bueno ba zuek plenoan egin zenituzten eskaeretan udalak zer egin duen, zer ez egin duen eta arrazoitu egiten ditugu guk ematen ditugun erantzunak, alde horretarik parkeen kasuan kurtso honetan ere umeen kontseilua badakizue gainera batzuk ikusi zaituztet umeen kontseiluan parte hartzen duzuen batzuk ere hemen bazaudete ba Santa Barbarako parkea beste erabilera gehigarri bat emateko edo parke hori gehiago erabiltzeko lanketa batean ari zaretela lau lan ildo berri atera dituzuela eta herriari zuen ideia horren berri emateko ekainaren 15ean jaialdi bat ospatu behar dituzuela eta bueno ba esan orokorrean proposamen guztiak oso interesgarriak diezela. Guk kontuan izango ditugula, landuko ditugula eta datorren urtean berri emango diezugula, berri emango diozugula zer egin dugun eta nola ezta? Eta nire aldetik edo gure aldetik besterik ez mila esker zuen proposamenagatik eta pentsatzen dut udalbatzako agian beste baten batzuk ere zerbait esan nahi dutela eta berez euren da hitza.

E.BARBERENA (EH-BILDU):

Bai eskerrik asko Maria eta eskerrik asko bereziki zuei etortzeagatik egia esan askotan esaten dugu ez? Haurrak eta gazteak zariela gure etorkizuna baina hala da eta guretako oso pozgarria da zuek jada zuen etorkizunari buruz eta gure etorkizunari buruz kezkatzea eta neurri ezberdinak proposatzea.

Guri zer tokatzen jakun ba zuek egindako proposamenak etxeko lan moduan hartu. Oso proposamen onak die, zehatzak die eta euretako gauza asko gure esku daz noski eta ahaleginduko gara horrek betetzen. Hoixe eskerrik asko eta segi lanean.



Esp.-kodea: 2017SAPL0005

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste norbaitek zerbait esna nahi du?

I.URIZAR (BALEIKE):

Herri Eskolako, Institutuko eta Arizmendi ikastetxeetako ikasleei eskerrak ematea egin duzuen lan ederragatik. Kliman aldaketa gaur egungo eta etorkizunerako erronka handienetako bat da eta oso notizia ona dela gazteak hain arduratsu ikustea askotan gu nagusiak baina gehiago. Egin duzuen lana oso baliagarria dela esatea bai ikasle bezala eta baita proposatu dizkiguzuen ekarpenetan bide seguruagoak oinezkoentzako, trafikoa gutxitzea eta moteltzea, bizikleta sustatzea, argiteri jasangarria ezartzea kanpainak areagotzea eta bideoan ikusi dugun beste hainbat.

Espero dugu guk politikari bezala zuek egin duzuen lan maila berean egotea eta zuen lan ildoak betetzea. Hurrengo ikasturtean pasau guri azterketa eta haber nota ona ateratzen dugun.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste interbentziorik badago? Bueno ba orduan zuentzako txalo bero bat. Eskerrik asko eta ekainean ikusiko gara berriz.

Bueno orduan guk plenoko lehenengo gaiarekin jarraituko dugu

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

2017ko maiatzaren 9ko bilkuretako aktak, aho batez, onartzen dira.

2.- PROPOSAMENA BUS GELTOKI BERRIA SORTZEKO MAKATZENA AUZOAREN GOIALDEAN. (2009CHOZ0004)

Udal Plenoak, aho batez, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Udaleko zerbitzu teknikoek txostena aurkeztu dute, zeinetan azaltzen duten Makatzena atzealdean zirkulazioaren noranzkoa aldatuta, jarri daitekeela kale horretan bus geltoki berri bat, eta horrek dakarrela kilometro kopurua gehitzea herri-bus zerbitzuan. Txostenak hau azaltzen du:

- a) Klausula juridiko-ekonomiko-administratiboen eta preskripzio teknikoaren agiria, zeinak arautu behar zuen prozedura ARRASATEN BUS BIDAIARIEN HIRI GARRAIOKO ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETA adjudikatzeko, onartu zen osoko bilkuran 2010eko maiatzaren 6an.



Esp.-kodea: 2017SAPL0005

- b) Lizitazio iragarkia argitaratu zen GAOn, zk. 91, 2010eko maiatzaren 18koa, eta proposamenak aurkezteko azken eguna ezarri zen 2010eko ekainaren 14a.
- c) Behin-behineko adjudikazioa onartu zuen osoko bilkurak, 2010eko uztailaren 8an, eta kontratua adjudikatu zion behin-behinekoz “LEINTZ GARRAIOAK SL” enpresari.
- d) Behin betiko adjudikazioa egin zuen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2010eko uztailaren 30ean, eta kontratua adjudikatu zion behin betikoz “LEINTZ GARRAIOAK SL” enpresari.
- e) Handitzea eta kilometroak gehitzearen kostua da:
- 650 metro izango lirateke, 0,65 km gehiago itzuli bakoitzean.
 - Urte osoan:

	itzuliak egunean	Km gehiago	Egunak:	
A egunak	52	0,65	226	7.638,8
B egunak	26	0,65	52	878,8
C egunak	24	0,65	21	327,6
			guztira	8.845,2 km

KOSTUA URTEAN: $8.845,2 \text{ km} \times 0,7811 = 6.908,99$, **gehi BEZa % 10 – 7.599,88€**

- 2017ko maiatzaren 11tik abenduaren 31ra arte izango zen 4.719,99 euro (BEZa sartuta).
- f) Azaldutakoaren arabera, udal zerbitzu teknikoek proposatzen dute onartzea kontratuaren aldaketa, ARRASATEN BUS BIDAIARIEN HIRI GARRAIOKO ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETArena, bere garaian adjudikatu zitzaiona LEINTZ GARRAIOAK SL enpresari, beharra baitago zerbitzuaren geltokiak gehitzeko, urteko kostua 7.599,88 euro, BEZa sartuta.
- g) Pentsatuta bazegoen ere zerbitzua abian jartzea astiroago, dagozkion akordioak hartu eta gero, seinale horizontaleko lanak desegoki egin izanak, udal zerbitzu teknikoek adierazi zutenaren kontra, sortu zuen zerbitzua abian jartzea modu urgentean maiatzaren 11n, segurtasun arrazoengatik.
- h) Ukitzen gaituen akordioa hartzea dagokiola udalaren osoko bilkurari, eta eroango dela hurrengo osoko bilkurara.
- i) Azaldutakoaren arabera, udal zerbitzu teknikoek proposatzen dute onartzea kontratuaren aldaketa, ARRASATEN BUS BIDAIARIEN HIRI GARRAIOKO ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETArena, bere garaian adjudikatu zitzaiona LEINTZ GARRAIOAK SL enpresari, beharra baitago zerbitzuaren geltokiak gehitzeko.

Aurrekoa aztertu eta gero, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoen batzordeak hauxe proposatzen du:



Esp.-kodea: 2017SAPL0005

1.- Onartzea kontratuaren aldaketa, ARRASATEN BUS BIDAIARIEN HIRI GARRAIOKO ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETArena, bere garaian adjudikatu zitzaiona LEINTZ GARRAIOAK SL enpresari, beharra baitago zerbitzuaren geltokiak gehitzeko.

2.- Jakitun geratzea kontratuaren aldaketa indarrean sartu dela maiatzaren 11tik aurrera.

3.- Onartzea urtean 6.908,99 euroko gastu bat, BEZa sartu barik (7.599,89 €, % 10eko BEZa barne), urteko kontratuaren prezioaren gehitzeari aurre egiteko.

4.- Diktamen hau bidaltzea hurrengo osoko bilkurara, han berretsi dadin.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Interbentziorik?

E.BARBERENA (EH-BILDU):

Bueno besterik barik EH-Bilduk ondo ikusten dau autobus parada sortzea eta iruditzen jaku beharrezkoa dela bai auzoaren izaeratik eta terrenoaren izaeratik eta gero baita kotxe pribatua utzi eta garraio publikoa bultzatzeagatik bakarrik bai hirigintza eta bai OZMA batzordeetan komentatu dugula gai bat eta nahi genuen ere plenoan komentatzea ez? Eta da badakigu udal teknikoei, udaltzainek etab. dauen norabidea proposatzen dan norabidea hobeto esanda ikusten dabiela ondo baina gu egon gara hitz egiten txoferrekin autobus gidariek eta beraiek badaukie kezka bereziki neguan izotza, elurra eta egiten duen egunetan.

Bakarrik eskatzea negua iristen denean eta horrelako egoera bat egongo balitz udalak aintzat hartzea egoera hori eta apur bat ekiditea nolabait txoferrek guri aipatzen zozkuen arrisku aukera horrek. Besterik barik.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste interbentziorik? Oscar.

O.GARCIA (PSE-EE):

Arratsaldeon guztioi. Egia da Eneko gu be bai txoferrekin egon gara hitz egiten eta kezka hori ere guregana etorri jaku beraiei esan diegu lasai egoteko kontuan hartuko dugula beraiek esandakoa eta negu aldi hotza egiten dauenian elurra egiten dauenian edo kriston euri zaparrada botatzen duenean. Guri medio guztiak jarriko ditugula mahai gainean ezer larririk ez gertatzeko hainbat akzio hartu ditugu hor dauen aldapa pixkat ezin dugu murriztu eta bai egin dezakegu aparkalekuren bat kendu. Hor dauen kurba hobeto emateko.

Beraien entzunda horrelako akzioak hartu dira itxaron behar negu artean eta ikusiko dugu zelan datorren negua baina guk dauzkagun medio guztiak mahai gainean jarriko ditugu ezer ez gertatzeko



Esp.-kodea: 2017SAPL0005

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste interbentziorik² Orduan bozkatzera pasatuko gara.

Bertaratuak	20	
Aldeko botoak:	20	EAJ-PNV (8), PSE-EE (3), EH-BILDU (7), BALEIKE (1), IRABAZI (1)
Kontrako botoak:		
Abstentzioak:		

3.- PROPOSAMENA UDAL ORDENANTZA ALDATZEKO, ARAUTZEN DUENA ARRASATEKO UDALAREKIKO ZORREN ORDAINKETA ATZERATU ETA ZATIKATZEA. (2016RBAR0038)

Udal Plenoak, aho batez, Ogasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Udaleko osoko bilkurak onartu zuen 2009ko uztailearen 16an udal ordenantza bat, Arrasateko Udalarekiko zorren ordainketa atzeratu eta zatikatzeari buruzkoa. Ordenantzaren helburu nagusia zen edukitzea araudi orokor bat eta bermatzea antzeko tratamendu bat, ez baztertzaila, zergadunei. Gainera, balio behar zuen argitzeko zer eskubide duten herritarrek nahiz zer irizpide erabili udal jardunean aplikatzeko, dagokion oreka lortze aldera zerga obligazioak betetzearen artean eta zergadunen ekonomia eta finantza zailtasunen artean, karga berririk ez sortzeko (errekarguak, interesak), izan ere, horiek ez dute laguntzen planteatutako arazoak konpontzen modu ez traumatiko batean.

Igaro dira 7 urte baino gehiago ordenantza hori onartu zenetik, eta pentsatzen dugu bete direla haren helburu nagusiak; hona hemen helburuok:

- **erraztasuna**, izan ere, ihes egin nahi genuen erregulazio gehiegizko eta konplexu batetik, gero ekarri lezakeena kortse ez premiazko bat, erantzuteko eskaera bati, apur bat ezberdina zena berariaz erregulatutakoaren aldean.
- **Bizkortasuna**, izan ere, jasotzen zuen erabakia delegatzea organo politikoetan eta arduradun teknikoetan, eta aukera ematen zuen administrazioak bizkor erantzuteko, hori guztia kontuan hartuta kasu jakin batzuetan geroago erabakiaren berri eman behar zitzaizela kide anitzeko organoei.
- **Oro har, erraztasunak ematea zergadunei zerga obligazioak ordaindu ditzaten**, izan ere, salbuesten zituen ordaintzetik berandutza interesak eta obligazioa izatetik bermeak aurkezteko, aurrez ezarritako epe eta zenbateko batzuetan planteatuz gero zatikatze eskaerak.



Esp.-kodea: 2017SAPL0005

Hala ere, eta oro har ordenantza honek ekarri arren aurrerapen garbi bat udalari, eskatutako zatikatze eta atzerapenak kudeatzeko orduan, baita ere, antzeman dira hainbat alderdi, hobetu daitezkeenak, komenigarri egiten dutenak ordenantza egokitzea eta aldatzea.

Zehazki, Ogasun batzordean aurkeztu eta aztertu da udal ordenantza berriaren zirriborroa, Arrasateko Udalarekiko zorren ordainketa atzeratu eta zatikatzeari buruzkoa, udal teknikariak eginga, zeina oinarritzen den, bai foru eremuko erregulazioan (Diru Bilketako Erregelamendua, Gipuzkoako Toki Ogasunen foru araua), bai horri buruz estatuko araudian. Horretaz gain, Ordenantza egokitu da erregulazio onaren printzipioei, jasoak daudenak 39/2015 Legean, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, 129. Artikuluan; Konkretuki, beharraren, eraginkortasunaren, efizientiaren, segurtasun juridikoaren, proportzionaltasun eta gardentasun printzipioei. Hona hemen alderdi nagusiak, aldatu direnak aurreko araudiari buruz:

- Irizpide nagusiak aldatu dira, atzerapen eta zatikapenak emateari buruz, eta egokitu dira zenbatekoak eta kasuak, baimenduak udal diruzainari eskaerak bizkortze aldera.
- Azpimarratzen da eskaerak aurkeztu beharko direla behar bezala arrazoituta.
- Zorren zatikapena emateko, exekuzio aldian daudenena, aurretik ordaindu beharko da zorra guztiaren % 20, albora uzteko ordainketa epea luzatzea asmo duten zatikapen eskaerak.
- Metodo orokorra, zor zatikatuak ordaintzekoa, pasatuko da izatera ordainagiriak helbideratzearena.
- Edozein kasutan salbuespeneko kausengatik, behar bezala egiaztatzen badira, baldintza desberdinak onartzeko aukera izango da, beti ere Ogasuneko batzordeak aurrez diktaminatuta.

Zirriborroa aztertu eta eztabaidatuta, Ogasun batzordeak, aho batez, ontzat ematen du zorren ordainketa atzeratu eta zatikatzearen udal ordenantza aldatzea, eta proposatzen dio osoko bilkurari akordio hau hartzea:

- 1) Hasiera batean onartzea udal ordenantzaren aldaketa, arautzen duena atzerapenak eta zatikapenak ematea, Arrasateko Udalarekiko zerga zorrak ordaintzeko.
- 2) 7/1985 Legeak, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena, 49. artikuluan xedatutakoa betetzeko, ordenantza hori jendaurrean jartzea hogeita hamar egunean, interesdunek aztertu dezaten eta, bidezkotzat jotzen badituzte, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ditzaten.
- 3) 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena, 49. artikuluan ezarritakoaren arabera, ordenantza behin betikotzat jotzea onartuta, baldin eta jendaurreko aldi horretan ez bada aurkeztzen erreklamaziorik edo alegaziorik haren aurka.



Esp.-kodea: 2017SAPL0005

4.- EAEKO AUZITEGI NAGUZIA; BAKE EPAITEGIKO EPAILE TITULARRA ETA ORDEZKOA IZENDATZEKO ESKAERA.(2017PBAK0001)

Udal Plenoak, aho batez, Enplegu eta Pertsonal Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. eta 102. artikuluetan xedatutakoa betetzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak egindako eskaerarekin bat, Udalbatzarrak aukeratu eta proposatu beharko dio Lurralde Eremu honetako Justizia Auzitegi Nagusiari udalerrri honetako bi bizilagun, bake epailearen eta haren ordezeko karguak hartzeko.

Hartarako, hauxe proposatu du Enplegu eta Pertsonal Batzordeak:

- 1.- Izendatzeko proposatuko diren pertsonak aukeratzeko prozesua agindu behar duten oinarri-arauak onartzea.
- 2.- Oinarri-arau horien iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta herriko hedabideetan.

5.-IRABAZI, BALEIKE ETA EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, LGTBI HARROTASUNAREN EGUNARI BURUZKOA

EKAINAK 28: PERTSONA LGTBI+ ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EGUNA

EH BILDU, BALEIKE eta IRABAZI-ARRASATE udal taldeek, ekainaren 28a LGTBI+ harrotasunaren eguna dela-eta, ondorengo mozioa aurkeztu dute Udalbatzarrean eztabaidatzeko.

ARRAZOIEN AZALPENA

Datorren ekainaren 28an LGTBI+ harrotasunaren eguna ospatuko da. Egun horrek orain dela 49 urte New Yorkeko Stonewall auzoan gertaturikoak gogoratzen ditu, gertaera haiek erreferente historikoa izan baitziren gay, lesbiana, bisexual, transexual, intersexual eta beste askok beraien eskubideak eta askatasunak aitortzearen aldeko borrokan.

Borroka horretan leku nabarmena dute LGTBI+ elkarteak, urteetan zehar lortzen joandako aurrerapen garrantzitsuen protagonista izan direlako, baina, baita gaur egun LGTBI+ pertsonen eskubide eta askatasun gaietan ematen ari den atzerapenaren lekuko direlako ere: bullying eta mobbing homofobikoa, pertsona transexualen bazterketa lan merkatuetatik eta gizartetik, GSG taldean HIESak duen prebalentzia altua, LGTBI+ kolektiboa kriminalizatzeko zenbait herrialdetako legeak eta abar. Egoera dramatiko horren aurrean, LGTBI+ elkarteei dagokie irmo erantzutea eta aniztasuna eta berdintasuna errespetatzeko eta LGTBI+ pertsonen osotasun fisiko eta moralarentzako arriskuei aurrea hartzeko hartu beharreko neurri guztiak eskatzea.



Esp.-kodea: 2017SAPL0005

Era berean, botere publikoei dagokie LGTBI+ elkarteei entzutea, horiek egiten ari diren lan sozial goraipagarria aitortzea, eta horiek horrela, pertsonen oinarrizko eskubideak eta oinarrizko zerbitzuak bermatzeko eta sexu joera edo sexu identitatearengatik edozein bazterkeria ekiditeko hartu beharreko erabakiak hartzeko konpromiso sendoarekin erantzutea.

Estatuko eta Euskadiko LGTBI+ elkarteek LGTBI+ gazteei eskaini die urte hau, beraiek jasaten baitute jazarpen eta ziber-jazarpena hezkuntza esparruan. Kolektibo horrek, gaur egun, oraindik ere, beren sexu izaera larritasunez bizi du askotan, gure gizartean etengabe agertzen diren jarrera baztertzailerik eta iraingarriengatik, eta beraien inguruan ia ez dute beste LGTBI+ pertsonen erreferentzia positiborik, askotan horrelakoak ikusezin bihurtzen direlako, batez ere emakume lesbianak, eta bereziki, landa giroko LGTBI+ pertsonak.

Hori guztiori kezka iturri da gizarte osoarentzat eta botere publikoen berehalako erreakzioa eskatzen du – beraiei baitagokie gazteen ongizatea bermatzea- jazarpenaren aurkako neurri irmoak hartuz, aniztasuna balore sozial bezala sustatuz eta gazteen parte hartzea eta elkartegintza bultzatuz.

Horregatik guztiarengatik ondorengo erabakiak har ditzala eskatzen zaio Udalbatzari:

1.-Arrasateko Udalak bat egiten du ekainaren 28an, LGTBI+ harrotasunaren eguna dela eta LGTBI+ elkarteen ospakizun eta erreibindikazioekin, eta berariaz adierazten du sexu joera edo identitateagatik LGTBI+ pertsonen mundu osoan, eta bereziki gure udalerrian, etengabe jasaten duten bazterkeriaren aurka dagoela.

2.-Arrasateko Udalak LGTBI+ kolektiboaren eskubideekin eta berdintasunaren aldeko apustuarekin duen konpromiso sendoa erakusteko, aniztasunaren ikur den ostadar bandera udal eraikin publikoetan jarriko du ekainaren 28an.

3.-Arrasateko Udalak onartzen du herriko pertsona eta borroka LGTB+ delakoaren memoria historikoa berreskuratzeko lana burutzea. Horrez gain, LGTBI+ eta herritar kolektiboekin batera adostuko den espazio publiko bat (murala, bankua, zebraidea etab) LGTBI+ kolektiboa sinbolizatzen duen ostadar koloreekin pintatuko dela.

4.-Arrasateko Udalak onartzen du 2018ko udal aurrekontuetan partida sortzea, udaltzaingoarekin elkarlanean, gauzatu dadin plan integral bat gorroto delituen aurka kolektiboekin elkarlanean.

5.-Arrasateko Udalak onartzen du Udal zinegotzi eta teknikarientzat, bereziki udaltzaingoan eta gizarte zerbitzuetan, formazioa eskaintzea aniztasun afektibo-sexualari buruz eta gorroto delituei buruz.

E.BARBERENA (EH-BILDU):

Besterik barik ekainaren 28a fetxa esanguratsua da bereziki gogoratzen delako mozioan aipatzen dan New Yorkeko gertaera hori. Esan geinke urteekin gauza batzuetan aurrera egin dela baina beste hainbat atzera eginda eta mozioan bertan aipatzen da ez? Teknologia berriekin pertsona kolektibo hauentzako jazarpen mota berriak ari dela agertzen ez?



Esp.-kodea: 2017SAPL0005

Mozio honen helburua izan da eta behintzat EH-BILDUK eta nik uste dut Irabazi eta Baleiekek be konpartitzen dabiela Arrasateko udala gaia heldu eta nolabait pronunziatzea, besteak beste, ez dugulako haxe lantzeko beste aukerarik ikusi fetxak gainean egonda ekaineko plenoa gaur da, uztaila arte ez da egongo besterik, batzordeen maiztasuna ez da izaten jakina zoritxarrez eta ez dugu kalendario finko bat edukitzen eta horregatik ekarri dugu uste dugu zentzuzko preambulo bat dela eta eskatzen dien gauzak zentzuzkoak diela eta horregatik espero dugu gaur onartzea.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste interbentziorik? Anuska.

A.EZKURRA (EAJ-PNV):

Bai arratsaldeon guztioi. Alkate andrea, zinegotziok bueno oposizioak aurkeztu dezuten mozio honen aurrean arrazoen azalpenean idazkariak irakurri duen arrazoen azalpenean EAJk guztiz bat egiten dugu azalpenarekin, gaiarekin, askatasunekin, kolektibo guztien askatasunekin baina gainera osteguneko bozeramale batzordean aurreratu genizuen moduan bai faltan botatzen ditugu hemen zehazten diren erabaki hauek dagokion batzordeetan edo agian batzordeak ez dira zuek oposizioak ez dezute agian maiztasun gehiagorekin ikusten baina behintzat faltan botatzen duguna da berdintasun teknikariek, batzordeburuarekin gai hauen honen inguruan dagokion batzordean eta uste dugu berdintasun batzordea dela ba gai hauek zehaztea tratatzea, hitz egitea zergatik?

Hemen proposatzen dituzuen puntuetan besteak beste bigarren puntura joango naiz, hemen jartzen du egunean bertan aniztasun ikur den ostadar bandera hori udal eraikin publiko batetan egotea bueno urte osoan daukagu gazte bulegoan ostadar bandera hau, baita daukagu hemen beste laugarren puntuan esaten da 2018rako udal aurrekontuetan partida bat sortzea plan integral bat gorroto delituen aurka kolektiboekin elkarlanean egiteko mahaiari daukagu 2017rako daukagu mahai gainean indarkeria matxista aurre egiteko bigarren plan integrala ezagutzen dezutena bigarren plan hau martxan jarri behar dela 2017an bertan eta gainera foru araudi aldaketa bat egon da eta ia 2/2015eko foru arauak horrela exijitzen du gainera ba indarkeria matxista honen aurkako plan integralean bertan ere sartu behar direla gorroto delituen aurkako kolektiboak.

Orduan hau da, hau ere kontuan hartzen da eta kontuan hartuko da bueno ba pena bat da agian berdintasun teknikariek, berdintasun buruarekin hitz egin da tratatuaz gaia guk ere aurreko ostegunean berdindinotzuet proposatu genizuen gai hau mahai gainean geratzea.

Guk ere prest gaude ekainaren 28an egun hortan bertan adierazpen instituzional bat eta zerbait elkarrekin egiteko eskua luzatu genizuen eta gainera komentatu genizuen egun batzuk hartzeko eta mozio hau mahai gainean ez egotea.

Azkeneko puntuari dagokionean baita formazioaren gaian egia da 2016an formazio ekintza batzuk berdintasun sailetik burutu zirela eta baita 2017ko irailetik aurrera ere bigarren formazio tanda bat egongo da berdintasun teknikariek gaur bertan hitz egin dugu eta hori baita plangintzan dago.



Esp.-kodea: 2017SAPL0005

Bueno guzti honekin esan nahi duguna da noski baietz eskubide guztiarekin gaude, zaudete guztiok mozio mahai hona ekartzeko udal organu honetara ekartzeko hori dela eskubideetako bat noski baietz baina agian bai gai asko erabaki asko aurrez tratatzea uste dut ondo datorkigula guztioi erabakietan parte hartzeko eta guztion artean gauzak adosteko.

Horregatik gaiarekin berriz dinot guztiz bat egiten dugun arren guk ez diogu baiezkoa emango. Mila esker.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste interbentziorik? Eneko.

E.FERNANDEZ (EH-BILDU):

Arratsaldeon denoi. Guro notzun esan Anuska arrazoia daukazula azkeneko batzordea adibidez ez dela izan oso mamitsua eta ez gauen gai hau landu baina esangotzut zergatik, berdintasun arloan deialdi honetan esango nuke daukagula hiru erronka nagusi, gure esku dazenak, bat da biolentzia matxista aurkako plana berritzea eta esaten duzu 2017an egingo dela baina ez dakit ia sinistu ala ez ze legealdi hasieratik goiaz itxoiten borrokan batzordeetan behin eta berriz ateratzen gastau dugu energia mordo bat eta batzordean landu da.

Bigarren erronka da gure ustez behintzat da andradetan udal plana martxan jartzea adierazpen instituzional baten holan adostu gauen eta azken aurreko batzordean eskatu jakon batzorde buruari ea gobernuak plana martxan jarriko zauen, ez zauen martxan jarriko edo moldatu egingo zauen erabakitzea, konpromezua hartu zan azken batzorderako erantzun bat ekartzeko eta hirugarren erronka da emakume txokoko leku aldaketa, hor segurtasun arazo batzuk egon ziren eta bueno gabitz itxoitzen eta konpromezu hori hartu zauen batzordeburuak azken aurreko batzordean be bai lekuz aldatzeko aukera ezberdin mahai gainean egongo diren aukera ezberdinen artean bueno aukera ezberdin horrek ekartzeko zehazteko eta hori be azkeneko batzorderako ekarri in bizauen ba azkeneneko batzordean agertu zan esku hutsik ez zan esan andradetan egingo zan ala ez, emakume txokoa aldatzeko ere krokisak ez ziren ekarri.

Beraz, garrantzizko gai honek mahai gainean geratu ziren beste behin baita biolentzia matxistaren aurkako plana martxan omen da pleguetan gaz baina 25 hilabete pasatu dira legealdi hasieratik eta zin dagizuet lehenengoko batzordean bertan esan zala ia in bida eta 25 hilabete pasatu dira.

Beraz, eskatzea besteoi lanketak egitea batzordean konpromisoak hartu eta gero betetzen ez dienean ba apur bat ez dakit.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste interbentziorik?

I.URIZAR (BALEIKE):



Esp.-kodea: 2017SAPL0005

Bai ba kantu hau nahiko ezagutzen dugu ez? Ados zaudetela esaten duzue bai puntuekin eta bai zioekin baina berriro ere ezezkua bozkatuko duzuela eta berriro ere formaren aitzakia mahai gainera ekarriz. Nik uste dut azkenean zuk nahi duzuna egin da oposizioari lan egiteko forma bat inposatzea beti esaten batzordeetan eramateko gaiak etab.

Nire ustez eta gure taldearen ustez zuen estrategia gure inizatiba politiko guztiak batzordeetan bertan zapuztua diez ze batzordeak badakizuen ez itxiak dira gu ahalegindu ginen mozioa bidez batzordeak hiritarrei zabaltzera baina zuek aurka bozkatu zenuten eta bertan Enekok ondo esan dauen bezala edo ez dozkuzue kasurik egiten edo denboran luzatzen duzue pilo bat gaiak edo zuzenki gure inizatibak zapuzten dituzue bertan.

Hemendik argi azaleratzen dana zuek beldurra beldur terrible bat daukazue politikoki posizionatzera ze gaur praktikak esaten duzue forman eta edozein aitzakia erabiltzen duzue baina praktikan egin behar duzuna da ostadar bandera udaletxean jartzearen aurka, LGTBI bazterkeria salatzearen aurka, memoria historikoa lantzearen eta murala egitearen aurka, gorroto delituen aurkako plan integrala egitearen aurka eta esan gotzut Anuska zuk erabili duzu erretorika eta foru ez dakit ze lege aipatu duzun baina ez die biolentzia berdinak informatu nahi baduzu eta berez ez dienez biolentzia berdinak eta ondorio eta eragin berdinak ez daukienez lanketa bereiztuak behar daue eta bai jarriko dau lege horretan barneratu ahal dela lan hori baina nik uste dut eta nahiko zentzuzkoa dela plan integral bereizi bat egitea aproposa izango litzatekeela Arrasaten.

Azkenean pixkat laburbiltzeko berriro ere betiko forma berdinak erabiltzen dituzue gure lana zapuzteko guk mozioa daukagu herraminta bezala eta udaletxe honetan zuen posizionamendua ikusteko eta gure proposamena aurrera ateratzeko eta berriro ere batzordeetan ezin ez daukazuenez zertan askotan zergatiak azaldu hemen eitxen duzuna da gure lana guztiz zapuztu esaten ez jakuela gustatzen gure forma. Baina ezingozkozue inposatu zuek nahi duzuen lanketa.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Beste interbentziorik?

A.EZKURRA (EAJ-PNV):

Ez bakarrik gauza pare bat aklatzeko, hau da, hasieran esan dut mozioak eskubideak dira guztionak eta horren aurka ez gaude, horregatik hona etortzeko eskubide guztia daukagu guk erabakiekin jarri gara egin ditugu alegazioak edo komentarioak erabakiekiko hemen ez du jartzen udaletxean, jartzen du udal eraikin batetan argibidea.

